

Sorailuzeko Hamabostekaria 67. alea 2003ko apirilaren 11a

4. Greba Eguna Metalaren arloan



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**




GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Iragarlearen txokoan: Belarrak Loradenda

Gila Zubia / Telefona 943 75 30 11 - 646 43 90 40

“Lora salmentia eta belardendako produktuak eskaintzen dira eta iridiologo bat etortzen da jendian tratamenduak jarraitzeko”

**Zeintzuk eitten dozue lan hemen?
Naiara Elgeta eta Tere Ariznabarretak**



**Noiz ta zelan
zabaldu zenduten
denda hau?
Oin dala pare bat
urte erabaki
genduan dendia
zabaltzia, herrixan
halako beste
zerbitzurik ez
zeguan eta. Hasieran
ez genduan mundu
hau ezagutzen eta,
horretarako,
Madrilera juan ginan
ikastaro bat egittera.**



Ze zerbitzu eskaintzen ditzuzue?

Lora salmentia, lora-sortak be prestatzen dittugu ezkontza, hileta, opari... Honek danak etxera eruateko zerbitzua be eskaintzen dogu. Belardendako produktuak be eskaintzen dira gure dendan eta hilia behin iridiologo bat etortzen da jendian tratamenduak jarraitzeko.

Udaberrixan garela, jendiak lora gehixao erosten dittuala uste al dozue?

Bai, udaberrixakin jendia animatu egitten da, kanpuan be lorak ikusten dira ta.

Amaitzeko, etorkizunera begira aldaketaren bat egitteko asmorik bai?

Oindiokan ez dogu ezer pentsatzeko astirik euki.



Gerra bukatzeaz badago ere..

MAIDER GABILONDO

Badirudi gerra bukatzekotan dela, baina zoritxarrez, milaka haurren sufrimentuak iraungo du oraindik. Irakeko biztanlego zibilak hogeitabat egun luzez bonbardaketak jaso baditu ere, batzuentzat gerra motza izan da. Ehundaka haurrek bizia galdu badute ere, batzuentzat gerra hau garbia izan da.

Gaur egun gerra gero eta teknikoagoa dela esaten dute gerraren antolatzaileek, baina mendeetan izan diren gerra guztien antzera, gerra honek ere ondorio odoltsuak izan ditu. Taktika berri hauek ondorio latzagoak izaten dituzte biztanlego zibilarengan. Adibidez, uran depositoak apurtzeak, egarriaz aparte, gendea ur zikinak edatera behartu du eta honek gaitasun ugari edatu ditu Jende asko etxerik gabe gelditu da eta horrek familia asko ipini ditu noraezean igezka.

Hogetitabat egun, 21 gau, 504

ordu, 30.240 minutu eta 1.814.400 segunduz boben eztanda izan da Irakeko haurrek izan duten sehaska kanta. Milaka haurrek hurrengo hamarkadetan bonbardaketan eta eskola uztearen ondorio psikologikoak jasango dituzte, beraz gerra hau ezin dugu sinistu herri irakiarren askatasun bidea izan dela.

Oraingo haurrek dira Iraken etorkizuna, eta haur hauek, Golfoko lehen gerratik, azkenengo hamarkadan, nazioarteko zigorren eta bonbardaketa ezberdinen biktima zuzenak izan dira, eta orain zuntsipen berri bati aurre egin behar diote.

Beraz bonbardaketak laister bukatuko diren arren, komunikabideek kasua alde batetara utziko duten arren, eta Sadam diktadorea betiko gobernutik aldentzeko den arren ez dezagun ahaztu herri Irakiarrek jarraituko duela guzti honen ondorioak jasaten. Eskeini diezaiegun gure elkartasuna.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. Yankixak Iraken jarraitzen dabe. Stop. jo ta sua!. Stop. Ze iria ete dauke oin?. Stop. Siria?. Stop. Iran?. Stop. batek daki. Stop. Herrixan ze barri?. Stop. barrixak sarri. Stop. baztarretan hautsak harrotuta. Stop. zubi eta bide barrixak. Stop. Kiroldegiko kontuak. Stop. Korrika. Stop. Metalaren greba. Stop. eta postrerako. Stop. dana nataz zikintzeko. Stop. hauteskundiak ate joka. Stop. eta gero esango dau batenbatek. Stop. "Plazenzian zela egongo da ba bi astetik behin errebestia etartzeko beste barri?". Stop. ba bai, badago. Stop. eta hemen be Iraken moduan kazetarixok etengabeko arriskuan ibiltzen gara. Stop. ofizio bakoitzak dauzka bere alde txarrak. Stop. Ai, bazenkizue zenbat gauza lagatzen dogun argitaratu barik... Stop. etorri eta jakingo dozue. Stop. eta apostua?. Stop. espero zan modukua izan zan. Stop. astun xamarra. Stop. batez be protagonistendako. Stop. ja, ja ja!. Stop. Txakarra harro harro dabil oin. Stop. eta Etxebarri ikusi be ez da egitten. Stop. honezkero buruan erabiliko dabe beste aposturen bat. Stop. dana da. Stop. sinaduraren bat jaso edo eurekin egonalditxo bat egittia nahi dabenak. Stop. Iruñan aurkituko dittu domeka honetan.

Erreportaia

Abenduaren 31an azken bi urteetan indarrean izan den Gipuzkoako metal arloko lan hitzarmena iraungi zenetik, Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak (Adegi) eta sindikatu nagusiak metalgintzako lan hitzarmen berria sinatu ezinik dabilta. Ezadostasun horren ondorioz, ostiral honetan ELA eta LABek deituta laugarren greba eguna egin dute Gipuzkoako metalgintza arloko langileek.



Soraluzeko industriaririk gehiena metal arlokoa da



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte

Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.

Telefonoa 943 75 13 04

comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU

pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Gurutze Ariznabarreta, Enara Agirre, Eguzkine Aldazabal, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Jon Oregi, Oier Oregi, Eduardo Pombar, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Enara Agirre (943 75 13 04)

Logotia: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop. **Azala:** Aitor Madrid

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

Zorion agurrak



Ander
Apirilaren 24a
Zorionak maitea!!
Ondo pasau zure
zortzigarren urtebe-
tetzian.
Muxu asko gura-
suen partez.



Oier Fernandez
Apirilaren 13a
Zorionak potxolo!
Muxu haundi haun-
di bat!
Etxekuen partez.



Imanol Rodriguez
Zorionak potxolo!!
Ondo pasau zure urte-
betetze egunian.
Muxu haundi bat.
Etxekuen partez.



Nerea Alvarez
Apirilaren 8a
Zorionak potxola!!
Arrate, Asier eta
zure etxeko guztien
partez. Aupa erre-
a!!



Ane Laderas
Apirilaren 5a
Zorionak polittori!
Gero eta guapiago
zare Anetsu!
Etxekuen partez.



**Maria Jesus
Arrizabalaga**
Apirilaren 17a 58 urte
Zorionak ama!!
Zorionak etxeko gua-
penari! Senar eta
seme-alaben partez.



Jon Varela
Apirilaren 18a
Zorionak !!
Egun on ona pasau
deizula!
Etxekuen partez.



**Goizane eta
Eguzkiñe
Aldazabal**
Apirilaren 28a
20urte
Zorionak bikote!!
Zelako bi morena-
za dauzkaguzen
kuadrillan...!!
Besarkada eta
muxu haundi bana.
Kuadrillakua.



Aitor eta Elena
03-04-12
Kalongeko printziak
eta Zeletako dontzei-
lak elkar harrapau
dabe!!! Rurrerantzian
be, argazkixan bezain
zoriontsu izan zait-
xien opa dotsuegu!!
Lepo-lepotik heldutako
patxo haaandi bat
eta zorionik beruenak!
"Karpe diem"



Eider Varela
Apirilaren 22a 20urte
Zorionak !!
Baila morena sexy
thing!!!
Kuadrillakuen partez.



**Katarñie
Berrueta**
Apirilaren 26an
Zorionak maitea!
Etxekuen partez.



Gutunak

Askatasun Haizeak

Otsailaren 21ean aurkeztu publikua egin genduanetik Plaza Barrixan hainbat ekimen burutu ditugu herrixan. Seguraski gure berri izango zenduan. Aurrera begira ere berdin jarraitzea nahi dogu, kalia gure lanerako gune naturala bilakatu. Baina ez dogu nahi gure jarduna kalera soilik mugatzerik. Horregatik, datozen Udal hauteskundetara aurkeztuko gara.

Giza eta herri eskubide ororen murrizketa bortitza jasaten dihardugu egunero, baina herri plataforma hau osatzen dogun guztiak inoiz baino irdartsuago sentitzen gara egoera honi buelta emoteko. Soralezeko herrixa eraikitzen laguntzia nahi dogu gure ekarpenekin, abertzale, euskaldun eta ezkertiarren balorik defendatuz.

Hau posible egiteko, Herri Programa mardula prestatzen dihardugu. Herriko sektore ezberdin eta herritar askoren aportaziñuekin aberastu nahi izan dogun programia. Gure aldetik, danengana hurbiltzen saiatuko gara, danen eritzixak jasotzeko.

Euskal Herrirako autodeterminaziño eskubidia aldarrikatzen jarraituko dogu, eta, era berean, herri eta naziño askiagua eta sozialistagua lortzen, gure indar danak ipiñiko ditugu.

Amaitzeko, gure eskerrik beruenak zuen sinadura emonaz babestu gaituzuen soralezetar danori.

Mila esker eta betirarte. Askok garelako, bil gaitzen !

**Soraluzeko Askatasun Haizeak
Herri Bilgunea
Juan da Korrika**

Ordu bete be ez zeban egingo gure herrixan, baiña laga daben arrastua politta izan da. Ondo dakizue Korrika ez dala antxixiketa saio bat bakarrik, bere bueltan gauza asko batzen dituala, eta hori izaten da bi urtian behin ospatzeko arrazoia emoten doskuna. Eskuz esku lekukua pasatzia ez litzake hain hunkigarria izango azken hillabete honetan egon dan giruak lagunduko ez baleu. Ekintzak asko izan dira, eta lana ez da txixixa izan, baiña agujetak pasatzen jakuzenian goguan eukiko doguna jentian alaittasuna eta jarrera ezin hobia izango dira. Despiste batzuk kenduta, gure ustez dana primeran jua da. Eskerrik asko daneri, bai Korrika Batzordea osatu eta kilometruak erosi dituzuen guztiari, bai dirulaguntzak emon dituen enpresa, taberna eta dendei, eta baita zeuri be, ekintzetan parte hartu eta beti laguntzeko prest egon zaran horri.

Baiña Korrika ez da bukatu. Azkenengo kilometruak egiten dabil, eta domekan aukeria eukiko dogu Korrikari merezi daben agurra emoteko. Bere izaerari eutsiz, agurra festa giruan izango da, eta plentxioko euskaltzaliok be aukeria eukiko dogu Iruñara juateko. Autobusa badago. Ia betetzen dogun. Besterik barik, ez ahaztu egunero landu bihar dogula euskerian erabilleria, gizarte honetan leku duin bat izan deitan. Azken fiñian, hori da Korrikaren mezua, euskararen aldeko lasterketa iraunkorra. Ez da bukatzen sprint batekin.

**Soraluzeko Euskalgintza
(Pil-pilean, AEK Euskaltegia eta
Euskal Herrian Euskaraz)**

Merkatu Txikia

***Obra eta zerbitzuetako buru bat Bergarako Udalera.**

Baldintzak: Aparejadorearen edo Arkitekto Teknikoaren titulua edo Obra Publikoetako ingeniari teknikoaren titulua izatea. Euskarazko 4. hizkuntza-eskaki-zuna. Epea: 03-04-22 Bergarako Udala, telf. 943779100

***Ingurumen-zerbitzuetan ustiapen-arduradun bat Deba Goienako Mankomunitateerako.**

Baldintzak: Erdi-mailako titulazioa izatea, B motako gidabaimena izatea. Epea: 03-04-19.

Informazio gehiago Deba Goienako Mankomunitatean, tlfonoa: 943793399

***Peioen lan-poltsa Usurbilgo Udalean.**

Baldintzak: Eskola ziurtagiria edo titulu baliokidea izatea. B motako gidabaimena edo baliokidea. Epea: 03-04-19.

Informazio gehiago Usurbilgo Udalean: tlfonoa: 943371951

***Kultura eta hezkuntzako erdi-mailako teknikari bat Pasaiaiko Udalera.**

Baldintzak: Diplomatura eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna Epea: 03-04-15 Informazio gehiago Pasaiaiko Udalean, 943344034



BESTELAKOAK

***Aulki elektrikoa salgai.** Merke 943 74 22 05

***Valle De Aranen Etxebizitza ematen da errentan** Aste Santuan eta Pazko astean. 630082417

***Zarautz. Etxebizitza ematen da errentan, udan.** Hlru gela.

Hondartzaren eta plazaren ondoan. 609980252

***Aire-konpresorea.** 1,5 ZP Prezioa: 95 euro. Ondo dago. 79-86-28

***Solariuma salgai.** Bertikala da. GOpurputzerako 28 lanpara eta aurpegi-rako bat. 669426400

***Karabana salgai,** Escala 490 markakoa. Gehigarriekin. 657725447

***Idazmakina berria salgai.** 943 75 17 30

hildakuak

Juan Karlos Etxaniz Aristi

jaiotakoak

Iraulza Ostolaza Lakuesta

Anton Akizu Garzia

Ezoz Akizu Garzia

ezkonduek

Nikolas Mendia eta Nerea Altuna

Aitor Leturiondo eta Elena Garcia

Zer irizten dotsazu?

Udal hauteskundeetan atarian, Iraki egindako erasoaldiari Espainiar Gobernuak eman dion babesak hautsak harrotu ditu Euskal Herri eta Espainia osoan.

Uste dozu gerriak eragina eukiko dabela maiatzeko hauteskundietako emaitzetan?



Urko Azkorbebeitia
23 urte
Ikaslia
Nere ustez eukiko dau eragina, euki biharko leuke behintzat. Beren botuak eztaikitx beste alderdiren bateri emongo dotsazen jendiak edo botau barik geratuko diran.



Maria Jose Uzin
47 urte
Etxekoandria
Nere uste eragina eukiko dau. eztaikitx ze pasauko dan, baina uste dot PP kuak igarriko dabela gerrian alde egotia. Gainontzeko alderdiak antzera ibiliko diralakuan nao.



Ana Rolo
30 urte
Etxekoandria
Ba ez dakat idearik be, ze politikaz ez dot gauza haundirik ulertzen, baina iruditzen jata gobernuko partiduak beherakaia jasango dabela. Beste taldiekin ez dakit ze pasauko dan.



Jon Elduaiein
45 urte
Igeltserua
Gerran daren taldiak igarriko dabela uste dot. euskal herrixan agian ez dau eragin haundirik izango, baina espainiar estatuan bai.



Aitor Morillo
19 urte
Ikaslia
Uste dot urrengo hauteskundietan aukiko dabela eragina bai. Suposatzen dot PP-k behera eingo dabela. Beste alderdiak mantendu eingo dira.



Maite Rodrighez
32 urte
Ileapaintzailea
Bai, nere ustez eukiko dau eragina. PP-k behera eingo dau nabarmen. PP-k galtzen dittuan botuak beste nuntz baiterra jungo dirala uste dot.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



Kiru Muntaiak

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Errekaldia, 30
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 670 05 18 20

Olatik Estaziorako bide berria



Aste gutxi batzuen buruan zabalduko den Albesako zubiko lanak amaitu ostean, Olatik Estaziorako sahiesbidea egiteko lanak hasiko dira. Lanak erakuntza enpresaren bati izendatzeko lehiaketa zabalik dago apirilaren 14 arte eta dena ondo badoa, maiatz erdialdetik aurrera hasiko dira. Urtebete inguru iraungo dute eta 1.341.970 euroko aurrekontua izengo dute Izartu planaren barruan. Lanek aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituzte herriko trafikoa: **1.** Hilerritik Ikastetxerako oinezko bidea autoendako bide bihurtuko da, eskilarak kendu eta azpikaldera horma bat eginaz. Zeletako zubia bota eta berria zabaldu artean zabalik izango da. Bi semaforo jarriko dira denbora tarte horretan, joan etorriak zuzentzeko **2.** Zubi berria bi karriletakoa izango da eta espaloiak izango ditu oinezkoendako. Oraingoak baino aldapa gutxiago izango du, ekialderako norabide zuzenagoa izango duelako eta beheragotik lotuko zaiolako San Andreserako bideari (Zeleta baserrirako bidea, ezkerretara geldituko da. **3.** Olako bidetik

trenbidera egingo da bidea eta trenbideko argindar dorrearen parean aterako da. **4.** Trenbidetik estaziorako bidean bi karril izango ditu eta Estazioko trenbide zatiko bi aldeetako aparkalekuak kentzea aurrakusten da berriak jartzeko asmoarekin. Estazioa parean trenbiderako dagoen sarbidea ere zabaldu egingo da.

Balategieta eta errekaldeko semaforoak kentzeko aukera. Udalaren eskariz Tema etxeak egindako trafikoa azterketak ondorioztatzen duenez: Olatik Estaziorako sarbide berria zabalitzen denean gaur egun Soraluze sartzeko edo bertatik iteteko ibilbidea semafororik gabe izateko aukera izango da, horretarako, Balategieta eta Errekalde kaleak Bergararako norabide bakarrekoak izango dira eta Santa Ana eta Kalebarren Eibarrerakoak (Sagar Erreka inguruan zubi berri bat egitea ere aholkatzen du). Asteburuetan herriaren erdialdea oinezkoendako bakarrik izateko aukera ere guztiz egingarria dela azpimarratzen du azterketak.

Larreategiko zubibidea ez da botako

Foru Aldundiko errepide saileko iturriek argitu zuten, Larreategiko zubibidea botatzeko kaleratutako informazioak okerrak izan dira erabat eta "ez da inongo eraisketa lanik aurrakusten". Piezak jeitsi eta gero, hauek aztertzeko lanean dabilta momentu honetan, ardurak argitzeko helburuarekin.

Juan Manuel Arruabarrena Eibarren

Apirilaren 11tik 20ra bitartean, Juan Manuel Arruabarrena margolari plaentxiarraren lanak izango dira ikusgai Eibarko Topaleku erakusgelan. Arraldetan 19etatik 21etara eta asteburu eta jai egunetan 12etatik 14etara.

San Andresko lanak hasi dira



Dagoeneko hasi dira San Andresko eraikin azpiegituraz berriz hornitzeko lanak. Frontoiko erabiltzailendako aldagenez gain, soziedaderako komunak eta erabilera soziala (auzoko emakumeendako eta nagusiendako jarduerak, eskolako umeendako ikasgunea...) izango duen eraikin bat ere egingo da. Egitasmo hau, Udalak eta Debemenek bultzatutakoa da eta San Andres auzoko bizilagunak (elkartean daudenak) izango dira eraikitze lanen ardura izango dutenak.

Belarrak

Loradenda eta Belardenda

Erosketak etxera
daramatzagu

Telef. 943753011
Mugik. 646439040
Gila Zubian Soraluze



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teleline.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Bidegorriaren proiektua onartu da

Ostegun eguerdian egin zen Udal Plenoan aho batez onartu zuen Udalak, Bergararik Soraluzerako trenbide zaharra bidegorri moduan egokitzeko hitzarmena sinatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Bergarako Udalarekin. Bidegorria egiteko lanetarako 868.519 euroko aurrekontua aurrikusi

da. Aurrekontu honen erdia aldundiak ordainduko du eta beste erdia Udalek dagokien zatiaren arabera. Plenoan eztabaida gogorra piztu zen, Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziek baiezeko botua eman arren, alkateari, "hauteskundeak direla-eta presakako erabakiak hartzen ari dela" egotzi ziotenean.

Alberto Sudupe izango da EAJ-EAko zerrendaburua berriz



Alberto Sudupe izango da berriz ere Soraluzeko EAJ-EA koalizioak alkatetzarako aurkeztuko duen zerrendaburua. EAJ-EA datorren asteazken arratsaldean aurkeztuko ditu zerrendak kiroldegiko erakustoki gelan.

Fisioterapia zentru berria herrian



Oier Oregi soraluzetarrak, "Gogortuz" fisioterapia zentru berria zabaldu du herrian. Zentrua Santa Ana kaleko 7. zenbakian dago eta lepoko min, erreuma, erreabilitazio, tendinitis, esgintze eta antzeko lesioak sendatzeko fisioterapia zerbitzua eskeintzen du. Goiz eta arratsaldean dago zabalik eta Oierrek atsegina handiz hartzen ditu bertaritzen direnak.

Egunkariaren aldeko batzordea

Joan zen astelehenean osatu zen Udaletxeko Areto Nagusian Egunkariaren Aldeko Soraluzeko Herri Batzordea. 20-ren bat lagun izan ziren sorrera ekitaldian eta bertan herri batzordeak etorkizunean egin beharreko ekimenek eta antolaketa moduez hitz egin

zuten. Hiru helburu zehaztu zituzten, materiala saltzea, harpidetzak egitea eta Egunkariaren aldeko diru bilketa egun bat antolatzea. Horretarako talde eragile bat osatu eta atxikimenduak batzeari ekingo diote datorren astetik aurrera.

Askatasun Haizeak 350 sinaduratik gora



Askatasun Haizeak herri plataformak Udaletxean egindako sinadura bilketan 350 sinadura baino gehiago lortu zituen. Momentu honetan aurkeztu ahal izateko tramiteak betetzen dihardute eta ondorengo asteetan kale-ratuko dituzte zerrendak.

Soledad del Bosque PSE-EEko zerrendaburua

Soledad del Bosque izango da aurren ere PSE-EE alderditik alkatetzara aurkeztuko den zerrendaburua. Zerrendak osaturik dituzte eta datozen asteetan kaleratuko dute zein pertsona izango diren 2003ko hauteskundeetara aurkeztuko direnak.

Aste Santuko ospakizun erlijiosoak

Honakoak dira Aste Santurako aurrakusten diren ospakizun erlijiosoak:
Apirilak 13, Erramu Domeka
 9etan gaztelera
 11etan haurren meza
 12:30etan Prozesioa, Erramuen be-deinkapena eta meza elebiduna.
Apirilak 17 Ostegun Santua
 10etatik 11etara Bakarkako Aitormena. 18etan Jaunaren Afariko ospaki-

zuna. 21etan Ordu Santua.
Apirilak 18, Ostiral Santua
 9etan Gurutz bidea, Andre Mariaren Zeruratzetik, Ezoziraino. 17:00etan Jaunaren Nekaldiaren Ospakizuna.
Apirilak 19 zapatua
 22etan Bazko Gaubela
Apirilak 20, domeka
 12etan Jaunaren Piztuerako Bazko Jaia.

IKATXO GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
 20590 SORALUZE
 telefonoa: 943 75 13 20

EDURTZA Kafetegia
 Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak.

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Metal Arloko hitzarmena



Atzo Arrasateko kaleetanegin zen manifestazioan, Gipuzkoa osoko langileak bildu ziren. "Urteak daramatzate irabaziak metatzen. Orain geure txanda da" lemapean hasi zen manifestazioa n 2.000 lagun inguru batu ziren ELA eta LABen esanetan.

Abenduaren 31an azken bi urteetan indarrean izan den Gipuzkoako metal arloko lan hitzarmena iraungi zenetik, Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak (Adegi) eta sindikatu nagusiak metalgintzako lan hitzarmen berria sinatu ezinik dabilta. Ezadostasun horren ondorioz, ostiral honetan ELA eta LABek deituta laugarren greba eguna egin dute Gipuzkoako metalgintza arloko langileek.

Ezadostasun gogorrak

Sindikatuak eta enpresariaren elkartek dagoeneko lau aldiz baino gehiagotan jarri dira mahaiaren bueltan metaleko lan hitzarmen berriaren gainean berba egiteko, baina Gipuzkoako enpresariaren elkartearen eskeintza ez zaie nahikoa iruditu Gipuzkoako langileen gehiengo nagusia ordezkatzeko duten sindikatu abertzaleei. ELA eta LAB-ek osatzen duten plataformak, CCOO-en babesarekin, "lotsagarri"tzat jotzen du ADEGIren eskeintza eta aurretik CCOO eta UGT sindikatuarekin egindako "ezkutuko negoziazioetan" orain eskeintzen diren baldintzak baino askoz hobek mahairatu zituztela salatzen dute. Sindikatu abertzaleek diotenez, ADEGIk %5,5 eko igoera tabletan eta %3ko igoera erreala eskeini zuen eta honekin batera 11 orduko lan murrizketa urte osoko lanordu kopuruan. CCOO Sindikatuak ere bat egin du sindikatu abertzaleekin, baina oso kritikoa azaldu da ELA eta LABek duten negoziatzeko moduarekiko. ADEGIren

azken eskeintzak %4,4ko igoera tabletan eta %3koa igoera erreala proposatzen ditu baina lanorduei dagokionez ez du murrizketarik onartzen. Sindikatuen eskariak berriz, 2002ko prezioen %4ko hazkundeaz gaindiko 2,5 puntuko igoera

Sindikatu abertzaleek diotenez, ADEGIk %5,5 eko igoera tabletan eta %3ko igoera erreala eskeini zuen.

eskatzen du, %6,5eko igoera tabletan eta 24 lanorduko murrizketa ere bai, astean 35 orduko ordutegiaren bila. Era berean sindikatuak, hitzarmenean beste puntu batzuen gainean ere hitzeging behar litzar-

tekeela uste dute; Geroa (pentsioen finantziario sistema), lan prekaritatea, emakumearen bazterketa...

Soraluzen metal arloa nagusi

Soraluzeko industriaren zutabe nagusia metal arloan jarduten duten enpresa eta lantegiek osatzen dute; GOL, SAPA, FER, Irazola, Carmelo Mendizabal, Unamuno, MAH, Urreztarazu eta beste hainbat eta hainbat lantegik. Ehundaka dira Soraluzeko lantegietan lan egiten duten soraluzetar edo inguruko herritarrek. Gipuzkoako metal arloko lan hitzarmen berriak adostu ezker eragin handia izango luke Soraluzeko langilariaren zati oso garrantzitsu batean. Gerta daiteke ordea hitzarmenik ez sinatzea eta orduan azkenengo hitzar-



Langile eta ordezkariak atzoko greba eguneko Arrasateko manifestaziora joateko zai.

menak jarraituko luke indarrean. Soraluzeko LAB-ek adierazi digunez "egoera hori da patronalak eta sindikatu estatistikak lortu nahi dabena. Patronalak hemengo baldintzak estatuko baldintzen mailara bajatzeko eta UGT eta CCOOek hemengo hitzarmena estatu mailan eztabaidatzeko, hitzarmenik ezak espainiar gobernuari -dekretazo- baten bittartez dana pikutara bialdu ahal izango leuke eta ". Izan ere, Gipuzkoa da Espainiar estatuan langileendako hitzarmenik onuragarriena duen herrialdea, urtean 1.710 lanorduko hitzarmenarekin, estatuko batezbestekoa baino 59,3 lanordu gutxiagorekin. Hauxe da hain zuzen ere enpresariak mahaigaineratzen duten argudio nagusienetariko bat, "lan ordu gutxiago jarri ezker ez dogu konpetitibitatia mantentzerik izango", zioskun bere identitatea ezagutarazi nahi ez zuen Soraluzeko enpresaburu batek, langile batzuk greba egin eta gero lanordu extrak egiten dituztela salatuz. Enpresaburu honen ustetan, "ordu extrak dira lan-

postu barrixen sorreria galerazten dabena, debekatuta dare baina enpresa gutxi gara ordu extra barik funtzionatzen dogunak".

Grebaren jarraipena Soraluzen

Soraluzen LAB eta ELA sindikatuek osatzen dute gehiengo sindikala 30 ordezkariarekin (11 ELA / 19 LAB), gutxiengoa osatzen dute estatu mailako UGT eta CCOO sindikatuek 9 ordezkariarekin (4 UGT / 5 CCOO). LAB sindikatua da herrian afiliatu gehien duena eta horrekin batera herrian zuzeneko koordinazio gune iraunkorra izatea lortu duen ia bakarra. LAB-eko ordezkari esanetan "hitzarmena da lortu bihar doguna, bestela ez daukagu ezer." Soraluzen Grebak izan duen jarraipenaz galde-

"Hitzarmen orokorra da garrantzitsuena eta horretarako enpresak ADEGI presionatu bihar dabe"



Unamuno lantegiko langileek grebetan parte hartu dute gainontzekoekiko elkartasunez.

tuta LAB- gustora azaldu mobilizazioetan lortutako emaitzekin. "Osteguneko greban; Gol, Sapa, Carmelo Mendizabal, Amezuaneakua, Fer eta beste lantegi batzuk geldi egon ziran. Aurreko grebetan baino txikixagua izan da jarraipena baina halatabe garrantzitsua, %60 ingurukua. Egia esateko enpresariak baldintzarik txarrenak dira gutxien urtetzen dabena, ordu extrak sartuta soldata on bat irabazten dabelako sarritan, baina hori gaurko jana eta biharko gosia da. Minimuak segurtatu bihar ditugu". Era berean LAB-ek "herriko enpresa zuzendaritza batzuen trikimailuak" salatu ditu, zenbait enpresak langileei "grebara ez joateko proposamen interesatuak" egin dituztela adieraziz. LAB-en esanetan "azpimarratzekua da Soraluzeko enpresa txiki eta ertain askotan langilien eta zuzendaritzaren arteko harreman onak dirala-eta, enpresan bertan adosten dituztela itunak. Dana dala, kasurik gehixenetan enpresa barruko itunok herrialde mailakua baino baldintza hobiak jasotzen dituzte. Dana dala hitzarmen orokorra da garrantzitsuena eta horretarako enpresak ADEGI presionatu bihar dabe, benetazko negoziaziño bat hasi deixan".

Epe motzean konponbiderik ez

Ez dirudi langileen eta patronalaren arteko ezadostasunak epe motzean behinpein bi aldean adostasunez amaitzeko itxuririk duenik, LABen esanetan "patronala oindio ez da jarri ganoraz negoziatzera eta langilien batasuna hautsi nahixan dihardu, hitzarmen duin bat lortzeko borondaterik barik. Guk gure aldetik borrokan jarraituko dogu, ez dogu atzera egingo". Soraluzeko enpresaburuaren aldetik, langileen aldetik bezala eritzi ezberdinak daude adostasuna lortzeko minimoen kontuan, gehienek lanorduen murrizketaren alorrean ikusten dute eragozpenik handiena. Guztiak ere, ados daude ahalik eta bizkorren adostasuna lortzea ezinbestekoa dela eta "horrela ezin daitekeela jarraitu".

Telefonia 75 24 09

ARRANO

tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera



Hnos. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

KORRIKA 13 SORALUZEN



1- Apirilaren 6ko arratsalde eguzkitsuan Ehundaka soraluzetar batu ziran Korrikarengana herrixan. Gila Zubixan Mikel Leunda Euskara Teknikarixak hartu zeban lekukua eta euskararen aldeko diarrak eginaz juan ziran Osintxuko Mugarriraino. 2- Txakarra izan zan, Karretila apustuaren irabazlia. Txakarrak 50minutu bihar izan zittuan zirkuituari 10 buelta emoteko eta Etxebarrik xelebrequeri asko egin arren 52minutu eta erdi. Apustuaren ostian, bertso bazkari eguzkitsu eta Gaztetxeko berbena edarraz gozatu zeben ahal izan zeben beste. 3- Korrikaren inguruan antolatu dan egitarau mardulian danetik izan da; antzerkixa, musikia, hitzaldixak, diapositibak, kirola... abesbatzak be lan bikaina egin zeban. 4- Korrika Txiki euskararendako arnasa bihurtu zan.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

FER. **S.A.**
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soralueze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxe: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Manolo Novilla herriko sakristaua

“Neri fediak dana emoten dosta; lasaitasuna, ilusiñua, baloriak...”

Manolok 66 urte ditu eta Orensekoa da jaiotzez. 1966.urtian etorri zen Soraluze, Don Migel apaizak eskatu Azkoi-tiko monja bati laguntzailea behar zuela eta azken honen bitartez harremanetan jarrita. Ordutik hona, 33 urtean herriko sakristaua izan da eta da oraindik ere, jubilatze gogoz dagoen arren. Egunero 2-3 ordu egiten ditu elizan, asteburuetan gehiago eta garbiketa, erlojuaren jarraipena, kanpaiak jotzea eta meza guztietan laguntzea dira besteak beste sakristau moduan egin behar izaten dituen lanak. Herriko kristau mugimenduaren zutabe garrantzitsuenetako bat den gizon humil honekin hitz egin nahi izan dugu, kristautasunaz eta gizar-teaz.

Ze aldaketa somatu dozu zuk etorri zinanetik Soraluzen Kristautasuna bizitzeko moduan?

Ba gero eta jende gutxiago etortzen da Elizara. Ni hona etorri nintzian eliza beteta zegoen beti eta Aste Santuko prozesioetan igual prozesioetako burua zegoan Gila Zubixan eta azkena heltzen zan Kañoneserarte. Lehen jente asko etortzen zan baina oin gutxi.

Zenbat parroko egon dira zu etorri zinanetik?

Ba zazpi. Don Miguel, Don Javier, Don Jose Maria, Don Venancio, Sabin, Jokin eta oin daguana, Luis.

Zela alde dago lehengo Aste Santutik oingora?

Oin jentia kanpora juaten da eta ez da geratzen hamen ospatzeko.

Zergatik uste dozu gero eta gazte gutxiago etortzen dala elizara?

Ba ez dakit, berak jakingo dabe zergatik ez diran etortzen.

Zer iruditzen jatzu "katoliko ez praktikante" kontzeptua?

Jente dexentek esaten dau hori eta badago jentia esaten dabena juaten



Manolo Novilla elizako aldarean.

dala mezetara beste herri batera baina gezurra da. Eta oin jendiak jauna hartzen dau konfesau barik.

Igual gertatzen dana da jentia ez dabela nahi elizatik ipintzen dituan arauak jarraitzerik?

Elizatik bere arauak ditu baina jentiarik eskua emoten dotsazu eta beso osua hartzen dau.

Oin mezetara etortzen diranak fedia daukelako da. Baina igartzen da jentia gutxitu egin dala.

Zer ekarpen egiten dau fediak bizitzan?

Lasaitasuna, ilusiñua, baloriak... Neri dana emoten dosta.

Lehen esan dozu 66 urte dituzula, ez duzu jubilañuan pentsatu? ala ez dozu nahi?

Bai noski, jubilatzen egin bihar da Gustora nago lanean baina deskantsatu be egin biharko dot. Lan hau gustoz egin bihar dozu bestela ez dozu egiten,

astian igual ez dozu lan asko egiten baina zapatu eta domeketan bai eta aste osuan egon bihar dozu hemen. Soldata be ez da haundixa 27.000 pezeta kobratzen dut baina nik ilusiñoz eta fedez egiten dot lana.

Zuk lagatzen dozunian erreleborik izango da?

Ba ez dot uste, ez dakit zela egingo dabena, ze lan honek dedikaziño asko eskatzen dau. Gainera hemen gauza asko egin bihar dira; elektrizista lanak, arotzerixa lanak eta beste mila gauza.

Abade barrixa gaztia da, pentsatzen dozu gazte gehixago errakarriko dabela elizara?

Bera gaztiekin ibiltzen da hortik zihar eta oso ondo ikusten dot hori eta nik uste baietz, jente gaztia erakarriko dabela. Abade gaztiak freskura eta ikasketak gehixao dake eta errezaio moldatzen dira jentia.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

ff: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE

JABIER ALBERDI



ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32

Aerobika

Adostasuna bilatu ezinik

Kiroldegiko aerobik zerbitzuarekin sortu den egoera dela-eta, Marian Begil eta Eider Varela Batzokiko frontoian ematen diren aerobik eskoletako irakasleek, idatzi bat kaleratu dute. Idatzi horretan, kiroldegiko arduradunek kirol-zerbitzuen gestiorako kontratatu duten enpresa berriaren aldetik (Migel Gorostiza), jaso duten tratu baztertzaila arbuaitzen dute, azken bost urteotan aerobik taldearen gidaritzan egin duten ahalegina eta lortu duten "jendearen satisfazio maila altua" kontuan hartu gabe eta "inongo arrazoirik gabe" kaleratu egin dituztela salatuz. Alkatearengandik jaso duten jarrera ere salatzen dute idatzian, izan duen jokatibidea kiroldegiko arduradunen aldekoa izan dela egotziz. Azkenik, orainarte hitzegiteko aukerarik ez arren, etorkizunean, hitzegin eta urte hasieran lortu zuten adostasunera heltzeko prest dardela adierazten dute.

Alkateak bere aldetik, idatzi bat kaleratu du aerobik-eko idatziari erantzunez.



Aerobikekoek Batzokiko frontoian jarraitzen dute eguneroko entrenamenduetan.

Alkatearen esanetan, Kiroldegiko arduradunek "lehiaketa publiko bitartez lortu zuten izendapena" eta Udalaren eta enpresaren arteko harremanak kontratu batek arautzen ditu. Honekin batera, izendatutako enpresak langileekin dituen kontratu harremanetan Udalak ez duela parte hartzen azaltzen du. Azkenik, kiroldegiaren egoeraren inguruan, "baldintzarik optimoetan" dagoela aipatzen du, Udala adostasunera heltzeko beti prest dagoela gehituz. Kiroldegiko arduradunek ez dute inolako adierazpen publikorik egin nahi izan.

Pelota

Txapelketaz txapelketa

Deba Arroko Txapelketa

Soraluzetar guztiak Elgetatik ari dira jokatzen, Onar Muguruza ezik lesionatuta dagoelako.

Kadete mailan Aitor Atxotegik Elgetako Garaterekin dihardu jokatzen eta lehen bi partiduetan porrot bat (Elgoibar) eta garaipen bat (Eibar) lortu dituzte. **Gazte mailan** Erlei Txurruka eta Zuhaitz Rodriguezek porrot bat (Elgoibar) eta garaipen bat (Eibarren aurkaririk gabe) lortu dute. **Nagusu mailan** Jon Arrieta ari da jokatzen Xabier Ubera Elgetarrarekin batera eta Elgoibarren 22-

17 irabazi eta Eibarren 22-7 irabazi zuten.

Elgetako lau t'erdiko banakako txapelketan Iñaki jauregik eta Erlei Txurrukak lehen partidua jokatu dituzte eta biek irabazi dute 22-12ko emaitzaz.

Laskurain 2. Mailako Eskuz Banakako Txapelketatik kanpo gelditu da. Lehen partidua 22-7 irabazi zuen Eulate naparraren aurka baina bigarrenean ez zuen garaipena eskuratzerik lortu Berraondo Antzuolarraren aurka, 22 eta 12ko emaitzaz galduz.

Pala txapelketa

Torturaren aurkako pala txapelketa

Joan zen larunbatean eman zitzaion hasiera Soraluzeko Emakumezkoen Lehenengo Pala Txapelketari. Lehen 4 partidua jokatu ziren eta datozen asteetan jokatuko dira gainontzeko jardunaldiak. Pala Txapelketari aldarrikapen kutsu bat emanaz, antolatzaileek "Torturaren Aurka"ko kamisetak jasri dituzte salgai.

Futbola

Erregionala 10. postuan

Joan zen asteburuan jokatutako partiduetan oso emaitza desberdinak lortu zituzten Sorako taldeek; kadeteek 1 eta 0 galdu zuten Aretxabaretaren kontra, jubenilek 2 eta 1 irabazi zuten eta erregionalak irabazi egin zuen Urolaren aurka. Hurrengo partidua Zumaiakoren aurka jokatuko du Ezozin.

Bolo Txapelketa

San Andresko kanporaketa

Joan zen apirilaren 5ean jokatu zen San Andresen Gipuzkoako Bola Txapelketako 2. kanporaketa. Sailkapena honakoa izan zen: **1.** Jose Irusta (San Migel) 7kin. **2.** Jose Mari Arrillaga (San Migel) 5ekin. **3.** Luis Jabier Oregi (Asolaberri) 5ekin. **4.** Bittor Rodriguez (Asolaberri) 5ekin. **5.** Juan Kruz Arizaga (San Andres) 5ekin. **6.** Ander Santamaria (San Andres) 5ekin. Apirilaren 26an Ezoziko bolatokian izango da beste kanporaketa bat.

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KDL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Kontulan Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82
20590 Soraluze
GIPUZKOA

Roberto Cearsolo

“Inportantiena bakoitza bere buruakin gustora egotia da”

Heldu da Korrika Soraluzera eta etorri dan bezelako abixadiakin egin dau alde. Egiten daben giro ona aprobetxauaz kalera urten dogu ia gure galderak erantzungo dittuanen bat topatzen dogun. Plaza Zaharrera gerturatu eta hor nun aurkitu dogun Roberto, ume eta buruhaundi artian, lagun batzuekin kaleko giruaz gozaten.

Izen abizenak, edadia ta lanbidia.

Roberto Cearsolo, 42 urte eta ekonomista

la soraluzetarra izanda be, ez zara hemen bizi, ezta?

Ez, asteburuetan bakarrik bizi naiz hemen, bestela Galdakaon. Ni izatez elgoibartarra naiz, San Antoniokua.

Menurikan onena?

Babak, legatza kokotxekin eta gatztua.

Ze afiziño dauzkazu?

Bizikletan ibiltzia asko gustatzen jata.

Aspaldittik al daukazu afiziño hau?

Oin dala pare bat urte hasi nintzan, baina ez dot asti asko eukitzen.

Anekdotaren bat eukiko dozu kontatzeko, ezta?

Aurreko baten Markinatik behera nentorrela txingorra eta edurra hasi zeban, haiziak kaskua eruan zostan eta atzetik kotxe bat zetorren... Eskerrak ezer pasau ez zala!

Zer falta jako Soraluzeri?

Gaztiendako eta denbora libererako zehozer antolatu biharko litzake.

Gaur Korrika Soraluzetik pasatu da, korrika ein al dozu?

Nik ez dot korrika egin, nere seme-alabak egin dabe. Ez neukan txandalik eta...

Zer irizten jatzu Korrika ospatzia?

Oso ondo, Euskal Herri osotikan pasatzen da eta ondo pentzatzen jata.

Ametsen bat.

Jubilatzia da nere ametsa. Nere gustoko gauzak egitteko asti gehixao eukitzia nahiko neuke.

Aste Santuarako planen bat?



Roberto Cearsolo

Bertso Begiz

*Hara Roberto elgoibartarra
Galdakaon bizi dana,
jubilatze gogurekin
hartu bihar dozun fama.*

*Bizikleta gainian,
astixa dauanian,
baina gainontzian lana.
Aprobetxatu aurretik ondo
ez laga geroko dana.*

Etxebarri

(Doinua: Iparragirre abila dela)

*“Jubilatzia da
nere ametsa”*

Gu behintzat kanpora juango gara ahal dittugun egunak hartuta, baina oindio-kan ez dakigu nora.

Ederrena ala aberatsena?

Inportantiena bakoitza bere buruakin gustora egotia da.

Txisteren bat kontatuko al dotsezu

Pil-pileaneko irakurlieri?

Neri ez jataz gustatzen baina atzo horretako programa arrosa bat ikusi neban eta batek esan zotsan beste bati Hi CD pirata bat baino faltsuaua haiz!



Soraluzeko Askatasun Haizeak

Mila esker sinatu duzuen guztioi!

Soraluzen 2003ko apirilaren 11an

Argazki zaharra

Arrieta
basarrixa

1950. Urtian Arritxa basarrixari etaratako argazkixa da irudikua. Behixak uztarrixan lotuta basarriko atarixan agertzen dira Arritxa basarriko 5 bizilagun.

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Aitor Beretxinaga
Erantzuna: Bi liburu



SAN ANDRES

Iturgintza


*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

ELIZPE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Lakuesta

Optika 

Ikusmen arazozen frogak eta argibideak

Argazkiak errebelatzen ditugu

Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 30 59

Errenta Aitorpena 2003

egin zazu euskaraz!

Aurten, zure banketxeak Errenta Aitorpena euskaraz egiteko aukera eskeintzen dizu.

Heldu aukera honi eta bete zure Errenta Aitorpena euskaraz.



ETXEKIT

SUKALDE ETA BAINUAK

Luis F. Beristain

- Proiektu eta berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa
- Armairu enpotratuak
- Ate eta solairuak
- Elektragailuak



 **dica**
banatzaile ofiziala

Arrillaga z/g -Elgoibar-
Tel. 943 74 43 47

5 urteko bermarekin



I. IRRATSAIO

Lehiaketa



12-16 urte
bitarteko gazteentzat

**15 minutuko
irratsaioa**

prestatu eta ikastolako
irratian emitituko duzue

Binaka
osatutako
taldeak

SARIAK:

MP3 erreproduzizaileak,
Personal Digital Agendak,
kirol bonoak zuek nahi
duzuen erosteko...

Izena emateko eta informazio
gehiagorako, bidali e-maila lehenbailehen

elgoibar@ikastola.net
helbidera zeuon izenekin

BABESLEAK:

 **DANOBAT**
www.danobat.com

Radio Eibar
Cadena
SER
104.0 FM